

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO  
XEDAPEN OROKORRAK

1

DISPOSICIONES GENERALES DEL  
TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

*195/2022 Foru Agindua, martxoaren 30ekoa, 2021ean erositako gasolioagatik nekazaritzan eta abeltzaintzan jasandako hidrokarburoen gaineko zergaren itzulketa eskatzeko epea aldatzen duena.*

Martxoaren 25eko 274/2010 Foru Aginduak nekazaritzan eta abeltzaintzan gasolio erosketak direla-eta jasandako hidrokarburoen gaineko zerga itzultzeko prozedura ezarri zuen.

2. artikuluan ezartzen du nola eta zein epetan aurkeztu behar duten nekazariak eta abeltzainek gasolio erosketak direla eta jasandako kuotak partzialki itzultzeko eskaera. Bertan xedatzen denez, itzulketarako eskubideaz baliatu ahal izateko, nekazariak eta abeltzainek hurrengo 3. artikuluan aipatzen den eredu aurkeztu beharko dute, gasolio erosketak egin diren urtea amaitu ondorengo urteko maiatzean, aipatutako foru aginduan ezarritako baldintzei eta prozedurari jarraituz.

2022ko lehen hilabeteetako koiuntura ekonomikoak, zeinaren ezaugarria baita egungo krisi energetikoak, prezioen igoerak eta Ukrainaren inbasioak eragin duten inpaktu negatiboa, kome-nigarri egiten du likidezia neurriak ematea inpaktu hori pairatzen ari diren sektore ekonomikoentzat, eta horien artean nekazaritza eta abeltzaintza sektorea dago.

Hori dela eta, egoera hori arintzeko hartu beharreko beste neurri batzuen artean, egokitzat jotzen da aurreratzea 2021eko gasolio erosketengatik nekazariak eta abeltzainek jasandako hidrokarburoen gaineko zergarengatik ordaindutako kuoten itzulketa partziala.

Horiek horrela, hau

XEDATZEN DUT

*Artikulu bakarra. 2021ean erositako gasolioagatik nekazaritzan eta abeltzaintzan jasandako hidrokarburoen gaineko zergaren itzulketa eskatzeko epea aldatzea.*

2021eko gasolio erosketengatik nekazaritzan eta abeltzaintzan jasandako hidrokarburoen gaineko zergaren itzulketa eskatzeko epea, hain zuzen ere nekazaritzan eta abeltzaintzan gasolio erosketak direla-eta jasandako hidrokarburoen gaineko zerga itzultzeko prozedura ezartzen duen martxoaren 25eko 274/2010 Foru Aginduaren 2. artikuluan ezarritakoa, 2022ko apirilaren 1etik aurrera hasiko da zenbatzen, eta urte horretako maiatzaren azken egunean amaituko da.

*Azken xedapena.*

Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean.

Donostia, 2022ko martxoaren 25a.—Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua. (1891)

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

*Orden Foral 195/2022, de 30 de marzo, por la que se modifica el plazo de solicitud de devolución del impuesto sobre hidrocarburos soportado en la agricultura y la ganadería por la adquisición de gasóleo durante 2021.*

Por Orden Foral 274/2010, de 25 de marzo, se regula el procedimiento para la devolución del impuesto sobre hidrocarburos soportado en la agricultura y la ganadería por la adquisición de gasóleo.

Su artículo 2 establece la forma y plazo para la presentación de la solicitud de devolución parcial de las cuotas soportadas por los agricultores y ganaderos por las adquisiciones de gasóleo, disponiendo que para hacer efectivo el derecho a la devolución, los agricultores y ganaderos deberán presentar el modelo al que se refiere el artículo 3 siguiente, durante el mes de mayo del año posterior a aquél en que se realizaron las adquisiciones de gasóleo, en las condiciones y de acuerdo con el procedimiento previsto en la citada orden foral.

La coyuntura económica de los primeros meses del año 2022, con el impacto negativo producido en la misma por la actual crisis energética, el alza de los precios y la invasión de Ucrania, aconsejan facilitar medidas de liquidez para los sectores económicos que la están sufriendo, entre los que se encuentra el sector agro-ganadero.

De ahí que entre otras medidas a adoptar para paliar dicha situación se considere procedente anticipar la devolución parcial de las cuotas del impuesto sobre hidrocarburos, satisfechas o soportadas por los agricultores y ganaderos con ocasión de las adquisiciones de gasóleo durante 2021.

En su virtud,

DISPONGO

*Artículo único. Modificación del plazo de solicitud de devolución del impuesto sobre hidrocarburos soportado en la agricultura y la ganadería por la adquisición de gasóleo durante 2021.*

El plazo establecido en el artículo 2 de la Orden Foral 274/2010, de 25 de marzo, que regula el procedimiento para la devolución del impuesto sobre hidrocarburos soportado en la agricultura y la ganadería por la adquisición de gasóleo, para la solicitud del derecho a la devolución del impuesto sobre hidrocarburos soportado en la agricultura y la ganadería por la adquisición de gasóleo que se haya efectuado durante el año 2021, comenzará a computarse a partir del 1 de abril de 2022, finalizando el último día del mes de mayo de dicho año.

*Disposición final.*

La presente orden foral entrará en vigor el mismo día de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

San Sebastián, a 25 de marzo de 2022.—El diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas. (1891)